

# la perfumería

de Mercadona

2017KO GABONAK

**DIVA**  
DA GABONETARAKO  
MAKILLAJEA

## *Edertasun- kapritxoak*

**OPARITZEKO ETA  
BETE-BETEAN  
ASMATZEKO**

**AURPEGIA,  
BEGIAK, EZPAINAK  
ETA AZAZKALAK  
FESTARAKO  
PREST**

# LE PETIT BIJOU



LE PETIT  
BIJOU



# AURKIBIDEA

## 04 PRESTA ZAITEZ FESTA HAUETARAKO

Badatoz Gabonak... Ba al dakizu nola prestatu zure azala aurpegia, gorputza, eskuak eta oinak harro asko erakusteko? Baditugu behar dituzun tratamenduak, osagai egokiak eta tresnarik aurreratuenak, zure *beauty* unea berezi-berezia izan dadin.

## 12 NUDERA JOLASTEN

Modan jarraitzen du "no make up" joerak. Biluzik daudela ematen duten baina hala ez dauden azalak puri-purian daude. Satinatua edo matea, luzaroan irauteko etorri da ukitu gabeko itxuradun azalaren moda. Oinarrizko produktuak aurkeztuko dizkizugu.

## 16 GIZONEZKOEN DESAFIOA

Aski dituzu hamar minutu eta zure edertasun-erritualari leial jarraitzea aurtengo Gabonetan irudi ezin hobea izateko.

## 18 DIVA, AURTENGO GABONETARAKO MAKILLAJEA

Begiak, ezpainak, azazkalak eta ilea festarako prest. Ezin dotoreago ibiltzeko hiru *look*: hona perfektu egoteko behin betiko gida.

## 22 ARTE HUTSA

Iritsi da zure makillaje-paletak eguneratzeko unea. Aurtengo neguan, berrituta dator Maquilla-T linea: modaz eta kolorez betetako bi kutxatila.

## 24 ZURE FESTAN IZANGO NAUZU

*Glitter* kutsua eta festa-kolorea izango dute zure azazkalek urtea amaitu baino lehen. Ikusi Le Petit Bijou bildumako bitxiak, eta bete kolorez zure azazkalak. Prest al zaude distiratsu agertzeko?

## 26 EDERTASUN-KAPRITXOAK

Gabonetan oparitzeko eta bete-betea asmatzeko lurrin eta kosmetikorik atsegingarrienak.

### Azalean



Hau darama modeloak: Diva itzal-paleta; Diva ezpainetako arkatza, 01 zk., perla-eskarlata; Diva barra, 01 zk., perla-eskarlata metalikoa; 02 zk. urre-koloreko Diva distiraren ukitu bat ezpainaren erdian eta Diva 793 zk. urre-koloreko azazkal-esmaltea.

Argitaratzailea: MERCADONA SA  
Fuente del Jarro industrialdea  
Ciudad de Liria kalea, 5. 46988 Paterna / Valentzia  
Egilea: ELCA  
Inprimatzailea: Jiménez Godoy  
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Leku-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



# PRESTA ZAITEZ

# festa

# hauetarako

*Badatoz Gabonak...  
Ba al dakizu nola prestatu  
zure azala, aurpegia,  
gorputza, eskuak eta oinak  
harro asko erakusteko?  
Baditugu behar dituzun  
tratamenduak, osagai  
egokiak eta tresnarik  
aurreratuenak, zure  
beauty unea  
berezi-berezia  
izan dadin.*

# AURPEGIA



## *Eskuila magikoa*

Ondo-ondo garbitzeko, probatu ezazu aurpegia garbitzeko bi **Abiadurako Eskuila elektriko** birakaria. Trinkoa, eroso eta arina. Hiru buru desberdin ditu:

- ✓ Leuna da bat, edozein azal-mota sakon garbitzeko egokia.
- ✓ Bigarren burua, berriz, silikonazkoa da, aurpegiaren garbiketa sakonago baterako egokia; esfoliazioaren eta masajearen bidez, erabat ezabatzen ditu makillaje-hondarrak, zikinkeria eta ezpurutasunak.
- ✓ Hirugarren burua, azkenik, krema edo serum bidezko tratamenduak aplikatzeko guztiz aproposa. Eraginkorragoa da xurgapena, eta intentsitate handiagoa du tratamenduak. Tinkoago eta argitsuago geratzen da aurpegia haren masaje atseginaren ondoren.

### **EDERTASUN-AHOLKUA**

Azala bustita duzula garbitzeko, mugitu eskuila behetik goira, begien ingurua saihestuz.



# Azalerako gehigarri berezia

**Khanya Hyaluronic Booster**, zaintza intentsiboko fluido kontzentratua. Freskotasun-, edertasun- eta lasaitasun-itxura ematen die azalik zailenei eta deshidratatuenei haren formulak, zeinak azido hialuronikoa eta PhytoCellTec-a dituen oinarri. Azido hialuronikoak azalaren kanpoko geruzak hidratatzen ditu, hezetasuna atzitzen du, eta berehala ematen dio azalari itxura garbiagoa eta leunagoa. Osagaien artean duen aloe verak hidratazio bikaina eta onuragarria ematen dio; pantenolak, berriz, azalaren biziberritze-prozesua sustatzen du.



# Adinaren aurkako koktela

la perfumería

**Kolagenoa + Silanola dituen adinaren aurkako aurpegirako krema**, testura gozo eta atseginetua. Ezin hobea da zahartzearen aztarnei aurre egiteko, aktibo ahaltzuak ditu eta: kolagenoak –“azalaren arkitektoa”, oso sendogarria baita– leuntasuna eta sendotasuna ematen dio azalari; silanolak edo silizio organikoak, berriz, biziberritu eta leheneratu egiten du. Eta begirada gazteagotzeko, hor dituzu Exclusive Cosmetics begietako hidrogel-txaplatak, **Adinaren aurkako urrehun krema**, eta **Azido hialuronikodun birsortze intentsiboa**. Poltsarik, begi-zulorik eta neke-zantzurik gabeko begirada.



# Tez Perfecta aurreoinarriak zure lagun minak

Ospakizun-garaia da, Gabonak dira..., eta itxura ezin hobea eduki nahi dugu egun osoan. **Makillajeak egun osoan txukun-txukun irautea nahi baduzu, Tez Perfecta lineako aurreoinarriek azala lisatu eta berdindu egiten dute, eta leun-leun uzten.** Oso erraza da haiek erabiltzea: serumaren edo krema hidratatzailearen ondoren eta makillajearen aurretik ematen dira, makillajea erabat finkatuta gera dadin eta azalak itxura paregabea izan dezan egun osoan. **Aurpegiko aurreoinarri perfektionatzailea:** berehala nabaritzen da haren eragina, eta makillajerik gabe ere erabil daiteke. Egun osorako geratzen da azala ezin ederrago. **Poroak gutxitzeko aurreoinarria:** azal koipetsu eta mistoetarako egokia izaki, poroak ezkutatu egiten ditu, eta mate-itxura ematen distiradun guneei. Makillajearen aurretik aplikatzen da, masaje leun batez, distirarik ager ez dadin. Eta ez ahaztu bereziki ekitea T eremuari (kopeta, sudurra eta kokotsa). Betazaletako aurreoinarria: aplikatu, hatz-mamiaz, kantitate txiki bat betazal garbian; ondoren, begi-itzala. Begirada gazteagoa eta argiagoa izango duzu. Gainera, itzalak finkatu egiten dira, eta ez dira arrakalaten.



# GORPUTZA



## *Mendekotasun-sortzailea*

Esfoliatioak zelula hilak ezabatzen laguntzen du; azala biziberritu egiten du, eta itxura osasungarriagoa ematen dio. Gainera, suspertu egiten du, eta leuna eta ondo elikatua uzten. **Gorputzerako Coffee esfoliatzaileak** biziberritu egiten du azala, eta haren elastikotasuna berreskuratzen, osagai naturalez egina dago eta. Sakon elikatzen eta esfoliatzen du. Zirkulazioa hobetzen laguntzen dute kafearen estimulazio-efektuek, bai eta toxinak eta koipeak deuseztatzen ere. Bi aroma aukeran.



## *Argitasuna eman*

Eman zure azalari edertasun-gehigarri bat, eta are ederrago egongo da egun hauetan.

**Argitasun-efektuko gorputz-hidratatzaileak** hidratatu egiten du azala, nakar-itxura leuna ematen dio, eta nabarmendu egiten du haren tonua.



## *Zelulitisa, arrastoan sartuta*

Zelulitisari aurre egiteko, urte osoan erabili behar dira haren aurkako kremak. Aplikatzeko moduak ere badu garrantzia: behetik gora zabaldu behar da produktua, hanketan masajea emanez eta zelulitisa gehiena metatzen den lekuetan bereziki ekinez. **Zelulitisaren aurkako Viseger Pharmak** kafeina, karnitina, erratz-estraktuak, fucusa, te berdea, maka... ditu, guztiak ere osagai berrindartzaileak eta bizigarriak.





# ESKUAK ETA OINAK

## Zure armak

Produktu leunak erabili behar dira azazkalak zaintzeko, haien egitura kaltetu nahi ez bada. Irakurri arretaz, eta erakutsi manikura eta pedikura perfektuak.

- 1 Manikura bigungarria eta hidratatzailea egiteko pilula eferbeszenteak /
- 2 Azazkaletako lima /
- 3 Berehalako esmalte-kentzekoa, txori-arrosa eta E bitamina dituena /
- 4 9 1ean oinarri bitaminaduna eta lisatzailea /
- 5 Pedikura elektrikoko Blushion lima.



1

2



3



4



### GOGOAN IZAN

Ez ahaztu **9 1ean** oinarria ematea azazkalak margotu aurretik. Birsortzailea, antioxidatzailea, nutritiboa, leuntzailea eta adinaren aurkakoa da; B5 eta E bitaminak ditu eta, gainera, babestu eta indartu egiten du: 9 propietate oinarri bakar batean.

5




### ZAINDU ZURE OINAK

Kendu leunki oinetako azal latza eta gogortua, **Pedikura elektrikoko Blushion lima erabiliz.** Lehenbiziko erabileratik berreskuratuko dute oinazpiek eta orpoek berezko itxura naturala. Bi buru trukagarri ditu; erabil ezazu zure azalari ondoen datorkiona.



## Rose Gold

**Rose Gold azazkaletarako kita aurkezten dizugu. Osagai hauek ditu: nezeserra eta urre-kolore arrosako azazkal-esmaltea, 794 zk., zeinak, 795 zenbakiarekin konbinatuta, look sofistikatuagoa emango baitizu. Eta manikura zigilatzeiko, **distira-esmaltea, 796 zk. duena.** Baina badago gehiago ere: manikura dotorea eta aldi berean xumea nahi baduzu, erabili diamante-motako **dekorazio itsagarriak.****



# Azazkalordeak



Galdu, behingoz, **Azazkalordeak erabiltzeko beldurra**. Erraz aplikatzen dira; emaitza, berriz, polita eta naturala da. Ba al dakizu nola ipintzen diren? Lehenbizi, hautatu zure azazkaletara egokitzen diren *tipak*: ez badira zure neurrikoak, hartu handiago bat, eta limatu alboak. Eman itsasgarria *tiparen* barruan, eta jarri zure azazkaletan, hamar bat segundoz presioa eginda. *Tipak* kentzeko, komeni da azetonadun esmalte-kentzekoa erabiltzea: busti

azazkalordearen alboak, eta altxatu, laranjondo-ziri batekin. Itsasgarri-hondarririk geratzen bada azazkaletan, kendu azetonadun esmalte-kentzekoz bustitako kotoi batekin. Ondoren, margotu modako koloreaz.

# Manikura frantsesa

**Manikura frantsesa egiteko eranskailu gidariei**

esker, azazkal ezin politagoak izango dituzu. Erabiltzeko oso erraza da: lehenbizi, oinarri bat aplikatu behar da, azazkalak babesteko; ondoren, puntan ipini gidaria, ertza azpimarratuz; gero, bi esmalte-geruza eman, eta lehortzen utzi; kendu gidaria, poliki, eta, segidan, eman Manikura Frantseseko geruza bat edo bi azazkal osoan, eta lehortzen utzi. Azkenik, eman distira. *Voilà!*



Ezpainetan, barra krematsua darama modelook, 09 zk., su-gorria.

# Eta, gehiegikerien konpentsazio gisara...



**Otorduen ordezeko barrak** eta **batidoak** (zenbait zaporetakoak) lagungarri dituzu pisua kontrolatzeko.





Zuzentzaile  
finkoa & estalgarria

*Itxura bikaina egun osoan*



BI TONU AUKERAN

# NUDEra jolasten

Modan jarraitzen du “no make up” joerak. Biluzik daudela ematen duten baina hala ez dauden azalak puri-purian daude. Satinatua edo matea, luzaroan irauteko etorri da ukitu gabeko itxuradun azalaren moda. Hauek ditu oinarrizko osagaiak.



## 1 Crema hidratatzaile matetzailea

Gantza xurgatzen du, eta aurpegiko distirak kontrolatzen; makillajerako abiapuntu ideala da. Azal-mota orok behar du zaintza berezia uraren, olioaren eta hezetasun-faktoreen arteko oreka berrezartzeko. Crema honen landare-olioek naturalki orekatzen dute lipido-gabezia, eta sentsazio ezin hobea ematen diote azalari. Zeramidek, berriz, hobetu egiten dute azalaren elastikotasuna eta irmotasuna, eta hezetasun-galera konpentsatzen.

## 2 Makillaje eta zuzentzaile finkoa & estalgarria

Zuzentzaile berriak makillajeko bere kidearen zenbait ezaugarri ditu. Estaldura handia eta finkapen sendoa ematen ditu, baina erosotasunik kendu gabe... Erresistentea da; akatsak estaltzen ditu, eta kolorea eta argitasuna ematen du. Azalaren itxura hobetzen du, eta akatsak ezkututzen, bai eta itxura leunagoa

ematen ere. Zuzendu nahi diren guneen gainean ematen da, zuzenean: begi-zuloetan, sudur-hegaletan eta akats txikietan. Hatz-mamiarekin ukitu txikiak emanez zabaltzen da.

## 3 Hauts matetzaile unibertsala:

Aplikatu ondoren, erabat ezkutuan geratzen da haren tonu zuria, eta guztiz uniforme. Leun uzten du azala, eta akabera ederra eta osasungarria ematen dio, argia iragazten duen testurari esker. Distirak ezabatu egiten ditu, eta poroak txikiagotu; azala, berriz, belus-itxurakoa uzten du. Akatsak lausotu egiten ditu. Ezin hobea edozein azal-tonu eta motatarako. Makillajearen ondoren ematen da.

## 4 Aurpegirako distiren aurkako xaflak: Tez Perfecta

Makillajea hondatu gabe kentzen ditu distirak. Azala mate uzten du.

*Zure eskuak  
magiaz beteak*



**EDIZIO MUGATUA**

PERFUME BIZIA

deliplus





# AZALA HIDRATATZEKO ETA OREKATZEKO KREMA BERRIA

Azal normal eta koipetsuetarako



# GIZONEZKOEN DESAFIOA

Aski dira hamar bat minutu, eta edertasun-erritualari leial eustea.  
Ez duzu besterik behar aurtengo Gabonetan  
irudi ezin hobea izateko.



# Hau bai hidratazioa!

**9.60 krema hidratatzaileak** (A) eguzki-izpietatik babesten du zure azala; elikatu egiten du, eta garaia baino lehen zahartzea saihesten. Baina, aurpegiari ez ezik, eskuei ere erreparatu, neguko hotzaren mende egoten baitira, zure zaintzen premia larriaren pean. **Esku-krema ultrahidratatzaileak** azala elikatu, suspertu eta babestu egiten du lehortasunetik eta kanpoko erasoetatik.

## 2 Denen gogokoena

**9.60 sabelerako gel erreduzitzailea** (C) mugimendu zirkularrak eginez aplikatzen da, masajea emanez harik eta azalak erabat xurgatu arte, koipea metatzen den eremuetan; bereziki, sabelean eta gerrian. Ez utzi udarako soilik! Hobe da urte osoan erabiltzea, bainujantzia ipini orduko itxura ederra izan dezazun.

## 3 Ezin erakargarriagoa

**Sesgo eau de toilette** (D), lurrin freskoa eta dotorea, berritzailea eta nortasun handikoa. **Desodorante ikusezina** (E), espraian: izerditik eta orbanetatik babesten zaitu.



## 4 Ile zoragarria

**Gel finkatzaile estrasendoa, for men** (F): ilea ondo finkatuta, eta zehaztasun gorena. Moldatu egiten du ilea, eta zure neurrirako akabera lortzen.

## Metallic

Ezpain eskarlatei oso ondo doazkie smokey eyes grisak eta malbakolorekoak. Ezpainenetan, Diva ezpainenetako arkatza, 01 zk., perla-eskarlata; 01 zk. metallic Diva barra, perla-eskarlata, eta, bolumena emateko, 01 zk. Diva distira zuriaren ukitu bat ezpain osoan, edo ezpainenaren erdian bakarrik. Diva itzalpaletako grisak eta malbak ketuta geratzen da begirada. Sakontasuna emateko, 24 orduko waterproof begi-arkatz 01 zk. beltzarekin markatu begi-txokoa eta begiaren barrualdea. Diva 792 zk. gau-urdina azazkal-esmaltea du amaiera ezin egokiagoa Gabonetako look honek.

# DIVA

## Aurtengo Gabonetarako makillajea

Begiak, ezpainak, azazkalak eta ilea festarako prest  
Ezin dotoreago ibiltzeko hiru *look*  
hona perfektu egoteko behin betiko gida



## *Look berezia*

Inspirazio iturria, 1950eko hamarkadako Hollywoodeko diva handiak.

Uhin leun batzuek markatuko dute zure ilea, eta bilduta geratuko da, goian bi diadema dituela. Mercadonaren lurrindegian aurkituko dituzu diademak ere. Orrazkerak bezala, makillajeak ere argitasuna barreiatzen du; begirada, berriz, iraupen luzeko arkatz 02 zk. marroiak markatuko du. Betazal mugikorrean, nahastu Divaren paletako brontze-kolorea eta marroia eta inguratu begia paleta bereko urre-koloreko itzalarekin, aurpegiari argitasun handiagoa emateko. Maxi Volumen betile-maskara beltza 01 zk., berriz, betileei dentsitatea emateko. Ezpainenetan, Diva ezpainenetako arkatza 02 zk. perla-marroia eta Diva barra 02 zk. perla-marroi metalikoa. Masailetan, koral-koloretea; Diva hauts argitzaileak, berriz, metal-distirak sortzen ditu besoetan eta bularraldean; Diva 792 zk. gau-urdira azazkal-esmalteak, azkenik, manikura harro erakusten lagunduko dizu.



## *Night Disco*

Urteahar-guerako, berriz, hauta ezazu diskoetarako looka egunak argitu arte dantza egiteko. Txundituta utziko dituzu denak, ilea motots batean bilduta duzula eta albo batean ilerako apaingarriak aplikatuta. Hipnotikoa izango da zure begirada, betazal mugikorraren gainean Diva paletako itzal urdinak konbinatzen badituzu eta begiaren azpiko aldea urre-kolorekoarekin markatzen baduzu. Ezpainetan, Diva ezpainetako arkatza, 02 zk., perla-marroia eta Diva barra, 02 zk., perla-marroi metalikoa eta Diva distira, 01. zk., zuria. Distira emateko pintzel bat erabiltzea gomendatzen dizugu. Azazkaletarako, berriz, Diva 793 zk. urre-koloreko esmaltea.



1. Iraupen luzeko begi-arkatza, 10 zk., marroia / 2. 24 orduko waterproof begi-arkatza, 01 zk., beltza / 3. Diva ezpainenako arkatza, 01 zk., perla-eskarlata / 4. Diva ezpainenako arkatza, 02 zk., perla-marroia / 5. Diva ezpainenako arkatza, 01 zk., perla-eskarlata metalikoa / 6. Diva ezpainenako distira, 01 zk., zuria / 7. Diva ezpainenako distira, 02 zk., urre-kolorekoa / 8. Korral-koloretea / 9. Diamante-distirako espraia / 10. Maxi Volumen maskara, 01 zk., beltza / 11. Zuzentzaile finkoa & estalgarria, 4 zk., beix naturala / 12. Diva hauts argitzailea / 13. Diva ezpainenako arkatza, 02 zk., marroi-perla metalikoa / 14. 662 zk. esmaltea, top coat / 15. Diva 793 zk. urre-koloreko esmaltea / 16. Diva 792 zk. gau-urdina esmaltea / 17. Diva itzal-paleta / 18. Ilerako apaingarriak.

Decoraciones pelo  
delplus



# Arte hutsa

Iritsi da zure makillaje-paletak eguneratzeko unea. Aurtengo neguan, berrituta dator Maquilla-T linea: modaz eta kolorez betetako bi kutxatila.





## AURPEGI-PALETA

Egunaren edozein unetan aurpegia ezin ederrago edukitzeko. Diseinu eta tamaina idealak ditu beti soinean eramateko. Lehorrean erabili.

Hauk ditu:

- ✓ 4 hauts aurpegia lantzeko, belzteko, bolumena eta argitasuna emateko
- ✓ 2 kolorete-tonu
- ✓ Pintzel bikoitza, ile-aplikagailu eta guzti, ukitu txikiak emateko
- ✓ Ispilua



## MASTER MAKILLAJE-KITA

Makillaje-paleta bikaina, diseinu eta moldagarritasun apartekoa. Lau paleta ditu barruan, eta batera edo banaka eraman ditzakezu, une bakoitzean zer behar duzun.

- ✓ Aurpegi-paleta: 2 aurpegi-hauts, 2 kolorete eta brotxa bat dauzka.
- ✓ Ezpain-paleta: 8 ezpainetako goiko partean eta 8 *gloss* akabera-distira, batera edo banaka erabiltzeko, edozein ezpain-tonurekin. Sortu nahi adina konbinazio!
- ✓ Begi-paleta: 18 itzal-tonu, zenbait akaberatakoak –matea, satinatua eta perla-kolorekoa–, hauts-testurakoak eta lehorrean erabiltzekoak; gainera, pintzela ere badu, belaki-aplikatzaile bikoitz eta guzti.
- ✓ Zuzentzaile-paleta: 4 zuzentzaile-tonu eta pintzel aplikatzaile bat.



## Maisu-ukitua

Ba al dakizu nola erabili zuzentzaileak? Berdeak gorriuneak estaltzen ditu (pikortatxoak, kapilarrak); horia, berriz, zuzentzaile-argitzaile gisara erabiltzen da; beixa, azkenik, klasikoa da, gehiena ezagutzen duguna: begi-zuloak estaltzen ditu, eta aurpegia argitzen.



# Zure festan

## IZANGO NAUZU



*Glitter* kutsua eta festa-kolorea izango dute zure azazkalek urtea amaitu baino lehen. Ikusi Le Petit Bijou bildumako bitxiak, eta bete kolorez zure azazkalak.

Prest al zaude distiratsu agertzeko?

### Gorriaren gorazarrez

Gabonetako kolorerik gogokoena da. Aurten, emaiozu *glitter* ukitu bat zure azazkal bati. Izugarri gustatuko zaizu azken looka!!

**Le Petit Bijou** azazkal-esmaltea, 821 zk., gorria + *glitter* 823 zk. Eta ezpainetan, Barra krematsua, 09 zk., su-gorria.





## Distira purpurak

Purpura-gama ere ezinbestekoa da Gabonetan, ederki konbinatzen baitu urre-eta zilar-koloreko zer guztiekin.

**Le Petit Bijou** azazkal-esmaltea, 822 zk., lila.

Ezpainetan, **Barra** krematsua, 09 zk., su-gorria.

# Edertasuna

## KAPRITXOAK

Gabonetan oparitzeko eta  
bete-betean asmatzeko  
lurrin eta kosmetikorik  
atsegingarrienak







**9.60 WOMAN.** Eau de toilette, desodorantea (espraian, gasik gabea), body milka eta bainurako gela.



**Comotú amor.** Eau de toilette, bainurako gela eta gorputzeko lozioa.



**Elección.** Eau de parfuma, gorputzeko lozioa, bainurako gela eta minieau de parfuma.



**Rose Nude.** Eau de parfuma, body milka, bainurako gela eta desodorantea (espraian, gasik gabea).



**Beauty Cocktail Flor de Mayo**  
Esku-krema,  
Big Red Love lurrina  
eta osagarri bat.



**Beauty Cocktail Flor de Mayo**  
Esku-krema,  
Big Gold Love lurrina  
eta osagarri bat.



**24K Gold Progress**  
Oro eguneko  
krema 50 ml  
eta Oro  
gaueko krema  
(orain, 50 ml-  
koa ere bai).

Nezeserrak, zenbait modelo eta tamaina aukeran.





**Goldenboy 4Square**  
Gel-xanpua, body spray, desodorantea, eau de toilette eta after shave baltsamoa.



**Cool Wood Esencia Vital**  
Eau de toilette, bainurako gela, after shavea eta desodorantea (espraiari, gasik gabea).



**Acción 9.60.** Sport watera, finkatzailea, gel-xanpua eta desodorantea (espraiari, gasik gabea).



**Vído Hombre.** 24 orduko aurpegi-krema hidratatzailea, adinaren aurkako seruma eta begi-ingururako roll-ona.



**Comotú Fuerza**  
Eau de toilette, bainurako gela eta xanpua.



**Enciende for him**  
Eau de toilette, body spraya eta nezeserra.



**Beauty Cocktail Flor de Mayo.** Dutarako gela, Big mio lurrina eta osagarri bat.



eau de toilette + xanpua + bainu-gela

eau de toilette + body lotion + bainu-gela

2017KO GABONAK  
comotú





Haurrentzako  
Gorjuss nezeserrak.  
Zenbait modelo eta  
tamaina aukeran.

Haurrentzako  
personaien  
irudiak  
dituzten  
nezeserrak.



**GRU3. Mi Villano Favorito**  
*Eau de toilette*  
eta dutxarako gela.



**Cars**  
*Eau de toilette*  
eta dutxarako gela.



**Agnes. Mi Villano Favorito**  
*Eau de toilette*  
eta dutxarako gela.



**Prodigiosa**  
Bainuko seta eta lurrina.



**My Little Pony**  
Manikura-seta.



**Ilerako haurrentzako osagarriak**  
Matxardak, urkilak, turbantea eta diademak.

# DIVA

deliplus  
COLOR

1

EZPAINAK  
MARKATZEKO  
ARKATZA

2

EZPAINETAKO  
BARRA

3

EZPAINETAKO  
DISTIRA

4

HAUTS  
ARGITZAILEA

5

ITZAL-PALETA

6

AZAZKALETAKO  
LAKA







**Vido**  
GIZONENTZAT BAKARRIK